

Fermin Erñaiti

KAZETARIA

Valentziako hiritik dator notizia

N

egu gorriko hotzen amaierak gazteen karrikatzea ekarri du Espainiako Estatuko hainbat tokitan, PPrez mozketen aurka egiteko.

Valentziako hiritik datorren notiziaren arabera, hango polizia Pasaiaiko zezen hura bezain jenio bizikoa da, hamabost-hamasei urteko gaztetxoei oldartzean erakutsi duen bezala.

Ikasleak Gobernuak irakaskuntzan eginiko mozketen aurka karrikatu ziren, kalefakziorik ere ez zutela salatuz. Eta poliziak, beti bezain eraginkor, arazoa berehala konpondu zuen. Nola? Gaztetxoak berotuz, egurtuz. Gurean berritik gutxi duen irudiak oihartzun handia lortu du komunikabide guztietan, eta mozketek eraginiko haserreari poliziaren gehiegikeriek sorturikoa erantsi zaio, protestak beste lurraldetara ere zabalduz.

Ikasleak liburuak eskuetan ikusi ditugu, "Hau da gure arma bakarra!" oihukatuz. Irudiak Gabriel Celaya hernaniarraren *La poesía es un arma cargada de futuro* (Poesia etorkizun handiko arma da) izenburuko poema gogorarazi digu.

Paco Ibañezen ahotsean ikasi genuen olerkiaren arabera, poesia behar-beharrezkoa da, eguneroko ogia eta minu-



JOSU SANTESTEBAN

tuan hamahiru aldiz arnasten dugun airea bezain beharrezkoa. Denboraren joan-etorriak erakutsia badakigu poesiaren handitasunak ez duela zer ikusirik mundua aldatzeko eraginarekin. Dena den, hunkigarria da poema, Valentziako gaztetxoek ametsa bezain bihotz-altxagarria, Manuel Vicentek gogoratu berri digunez haserrea nerabezeroaren adin nahasian izaten baita garbiena, eskuzabalena, interesik gabekoa.

Argi dago poesiarako garai aproposik sekula ezagutu gabeko munduak lekutan utzi duela lirikotasuna: mozketak eta egurra, horixe duzue gobernuaren eskaintza bikoitza. Hau dena *atzerald* di aurreko denboran gertatu bada, iragarri diguten *atzerald* leunean gerta daitekeenaz pentsatzea kezkarria da, eta are kezkarriagoa *leuna* zena noizbait *latz* bihurtzen bada...

Badakigu Celayaren garaian bezain zaila dela poesiak mundua aldatzea. Liburua ere, jakina, ez da poliziaren edo beste edozeinen basakeriari aurre egiteko tresna eraginkorrena. Baina garai latzotan ere, garai latzotan batez ere, ezinbestekoak ditugu poesia, liburuak eta gaztetxoek ametsak. ■



Ikasleak Gobernuak

irakaskuntzan eginiko

mozketen aurka karrikatu

ziren, kalefakziorik ere ez

zutela salatuz. Eta poliziak,

beti bezain eraginkor,

arazoa berehala konpondu

zuen. Nola? Gaztetxoak

berotuz, egurtuz



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



usurbildarrek iragarri zutenean, bertan gobernatzen ez zutenek kaosa ekarriko zuela, karrikak arratoiz beteko

zuela, hondakinak biltzeko sistema horrek herria zorrez hondoratuko zuela, izan ziren isildu gabe aireratutako perletako batzuk, horrela jardun zuten lehen hilabeteak bereziki. Gero Hernani etorri zen. Hemen ere berdintsu, garai horretan oraindik Hamaikabat-ekoak bazirela uste zutenean, horiei gaineratu zioten hernaniar andana tranpan harrapatuak zituztela bere hondakinak Astigarragan uzten zituztela-eta. Egunerokotasunen normaltasu-

Atez
atekoa

nak kalmatu zituen nonbait. Oiartzunen, auzoan urak aski bare jada aiseago ekin zioten proiektuaren gauzatzeari. Bitarte horretan, ez dira gutxi izan Zero Zabor

bezalakoan informatze ahaleginak bidea egiten lagundu dutenak. Baina bereziki herri horien biztanleak dira sistemaren egokitasunaz pozik daudenak, egindako inkesta zehatzek adierazten duten bezala. Orain, Gipuzkoari dagokio eredugarria izaten, bestelako antolaketa posible dela, errauskailurik gabeko munduan bizi gintzekelako garbiki frogatzea. Lapurdira ere iritsi zaigu oihartzuna. ■

